

KORONABIRUSA  
ETA SISTEMAREN  
KRISIAREN AURREAN

**EHKO ESKUBIDE  
SOZIALEN KARTA  
BIZITZA DUINEN  
ALDE!**



Lehentasun  
sozialak



euskal herriko  
**eskubide  
sozialen  
karta**

carta de  
los derechos  
sociales

# KORONABIRUSA ETA SISTEMAREN KRISIAREN AURREAN



## **EHKO ESKUBIDE SOZIALEN KARTA BIZITZA DUINEN ALDE!**

Salbuespen egoeran dago Euskal Herria COVID-19 birusaren ondorioz, konfinamenduan. Osasun krisia, askotan aipatu dugun sistemaren krisiaren erdian eman da eta nola ez, krisi guztietan bezala, sistema kapitalista, heteropatriarkal natura suntsitzaile eta arrazistaren kudeatzaileek langileon bizkarrera bota nahi izango dituzte egoeraren ondorioak.

Koronabirusaren krisi honek oraindik eta ikusgarriago egin du gehiengoaren kontra eta gutxiengo baten aldeko logikan oinarritzen den sistema honek ez duela funtzionatzen. Eta beraz, garaia dela momentuko egoerari aurre egiteko neurriez gain zaintzak eta bizitzak erdigunean jarriko dituen sistema berri bat eraikitzeko.

Erantzukizun eta ardura kolektiboak behar beharrezkoak ditugu une hauetan eta Euskal Herriko Eskubide Sozialen Karta (EHESK) osatzen dugun sindikatu eta eragile sozialak prest gaude. Baina argi daukagu koronabirusak eta honi aurre egiteko neurriek sorturiko salbuespen egoerak sortutako beharrei erantzutearen azken erantzukizun politikoa Gobernuena dela.

Duela bi hilabete eskas, milaka izan ginen Pentsio, Lan eta Bizitza duinaren alde Urtarrilaren 30ean Greba Orokorra batu ginen langile eta herri sektoreak. Greba ofentsiboa zela esan genuen: Murrizketa zehatzei erantzun baino, bizitza erdigunean jarri, prekarizazio prozesuari aurre egin eta aldaketa sozialerako burujabetzan urratsak emateko greba bezala kokatu genuen.

Gauzak horrela, egun Euskal Herrian koronabirusak sortutako testuingurua kezka bizi dugu EHESK osatzen dugun sindikatu eta eragileok. Kezkaz, lehenik langile eta oro har herritarron osasuna delako kolokan dagoena epe laburrean eta kezka, epe ertainean osasun krisiaren testuingurua baliatuz, elite ekonomiko eta politikoen eraso berri baten aurrean kokatu gaitzakeelako.

Ez gaude prest egungo testuingurua baliatuta logika neoliberallean sakonduko duten neurriak onartzeko eta zentzu honetan Instituzioak interpelatzen ditugu langile eta gehiengo sozialaren aldeko politika eta neurriak hartu ditzatela. Egungo eredu sozialak aldaketa sakonak behar dituela utzi du agerian koronabirusak eragindako krisiak eta EHESK-tik horren aldeko bidea aldarrikatu eta egiteko prest agertzen gara. Zehazki:

# 01

## ZERBITZU PUBLIKOAK GARATU



- Azken urteetan zerbitzu publikoetan emandako murrizketak atzera bota.
- %40ko behin behinekotasuna %6ra murriztu gutxienez.
- Osasun sare pribatua zein bestelako azpiegitura pribatuak (hotelak...) osasun publikoaren esku jarri berehala.
- Pribatizazioak gelditu.
- Hezkuntza publikoan areagotzen ari den segregazioarekin amaitu eta arrakala teknologikoarekin amaitzeko, ikasle gutxiei aukera berdintasuna bermatzeko neurriak hartu (ordenagailuak, wifia kolektibizatu...)
- Kalitatezko zerbitzu publikoak garatzeko baliabide nahikoa bideratu.
- Zaintza sistema publikoa, unibertsala, doakoa eta duina garatu.

# 02

## EGOERA PREKARIOENEAN DAUDEN KOLEKTIBOEN BABESA

- Babes sozialerako diru sarrerak (DSBE, PCV, GLL...) bermatzea eta automatikoki berritzea krisiak irauten duen bitartean (hilabete aurretik ingresoak egitea, krisia amaitzean aztertzea expedienteak). Bide telematikoen bidez eskari berriak egiteko erraztasunak jartzea.
- ILPan planteatzen ziren baldintzak finkatzea.
- Kanean bizi diren pertsonen zaintza eta arreta. Beharrezkoak diren neurriekin, gune bereziak antolatzea higiene, aterpe eta elikadura bermatua izan dezaten.
- Gizarte Larrialdietarako Laguntza (GLL) berriak ezarri: Paperik gabe lanean ari diren langileei begirako neurriak. Diru sarrerarik gabe dauden eta egon daitezkeen bizi baldintzak bermatu.
- Askatasuna mugatuta duten guneetako herritarren baldintzetan arreta jarri (espetxeak, psikiatrikoak, adin txikiko zentroak, CIE-ak...): isolamendua ekiditzeko neurri telematikoetarako aukera ireki, osasuna bermatu.
- Pentsio duinak bermatu. Gutxieneko 1080 euroko pentsioa izan dadin hartu beharreko erabakiak inplementatu.



## ETXEBIZITZA

- Etxegabetzeak gelditu: inor ez aterperik gabe.
- Alokairu eta Hipoteken luzamendua eta konfinamendu egoera bitarteko ordainketa salbuespena: langile eta herri sektoreen diru sarreren murrizketen eraginak apaltzeko. DSBEa kobratzen dutenek (edo errenta berdina duten pertsonak) ezingo dute %15a baino gehiago bideratu alokairura.
- Nafarroako Gobernuak, Eusko Jaurlaritzak, Diputazioak eta Udalek dituzten etxebizitzak horren zerbitzura jartzea. Bankuek expropiaturiko etxebizitzak etxerik gabeko unitate familiarren beharretara egokitu.

## ELIKADURA OSASUNTSUA

- Behar bereziak dituzten langile eta herri sektoreei begirako neurri bereziak: Elikagai bankuak bertan behera geldituta, zerbitzuak ematen zituzten familiekiko arreta berezia.
- Elikagaien beharrezkoak diren osasun neurriak hartuz, tokikoa eta kalitatezkoak diren elikagaiak etxetara iristen direla bermatu.
- Tokiko ekoizleen elikagaiek irigarri egitea eta azokak zein kontsumo kolektiboko salmenta kanalak segurtasunez irekita mantentzea.

## URA

- Ur mozketak ez baimentzea. Ura eskubide unibertuala da.

## ENERGIA

- Salbuespen egoerak irauten duen bitartean, berogailu eta argindarraren fakturari aurre egin ezin diotenek hauen ordainketatik aske utzi.

## ASKATASUN SOZIAL ETA POLITIKOAK

- Kolektibo zahargarrienekiko (migranteak, LGTBIQ, helduak...) jarrera oldarkorra gogor zigortu.
- Mozal legea, lege antiterrorista, deportazio beroak... bertan behera utzi.
- Mobilizazio soziala, sindikala edota herritarra ez jazarri.
- Merkantiaren igarobidea bermatzen den bezala, herritarren trantsitua bermatu, beharrezkoa den kasuetan.

# 04

## ZAINZA LANAK



- Helduen egoitzetan edo beharrezkoak diren zaintza zerbitzuetan behar bailtz kontratazio berriak eta langileen osasuna bermatzeko segurtasun neurriak.
- Heldu edo adin txikikoen zaintza senideen esku balego, langile horientzat %100eko soldata bermea, ez bada beste neurri baten bidez, Ezinbesteko Betebeharragatik baimen ordaindu gisa.
- Etxeko laguntza eta etxeko langileentzako jardun porotokoloa.
- Mugimendu feministaren deia jarraituz zaintza krisiari erantzuteko mahai baten eraketa beharrezkotzat jotzen dugu eta konpromisoa agertzen dugu Kartan biltzen garen eragileak bertan parte har dezaten sustapen lana egiteko.

# 05

## INDARKERIA MATXISTARI AURRE EGIN

- Biolentzia matxista jasandako emakumeei arreta berezia ezarri, babes guneak ziurtatuz.
- Indarkeria matxista jasan duten emakumeak euren erasotzailearekin ez konfinatzeko urgentziazko neurriak hartu eta laguntza bideratu.

# 06

## LANPOSTUEN DEFENTSA ETA BERMEA

- Lanpostuak mantendu eta prestazioak bermatu denbora baterako kontratua etenda izan dezaketen langileak babesteko. Kaleratzerik ez!
- Langilerik gabeko autonomoak: kontziliazio, gaixotasun edo hartutako neurrien eraginez haien jarduna garatu ezin dezaketenek autonomo kuota ordaintzea salbuetsi. Aktibitatea eten behar izan dutenei, desenplegurako prestazioa bermatu. Bereziki aipatu behar ditugu etxeko langileak, erregimen berezia izanik, gaur egun ez baitute prestazio sozialik jasotzeko eskubidea bermatuta.
- %100eko Soldata bermea kontziliazio, gaixotasun edo neurrien eraginez lan egiteari utzi behar duten langileei. AipEtxeko langileek dute.
- Hartutako neurrien ondorioz esposatutako kolektiboen osasuna bermatu: Osasungintzako langileak, elikagaien dendetakoak, etxeko langileak. Beharrezkoak diren kontratazioak egin.
- Multinazional eta azken urteetan irabazi handiak dituzten enpresentzako zergak. Enpresa txiki eta ertainen bideragarritasuna bermatzeko plana.

# 07

## INFORMAZIO ESKUBIDEA



- Interneterako sarbidea. Datuak handitu dohainik.
- Informazio programa bereziak herritar guztiok egoeraren berri izan.
- Komunikaziorako kontratuen ez etetzea.
- Baliabiderik ez duten pertsonentzat internetera sarbidea bermatzea, eskubide gisa.

# 08

## KRISIAREN ERAGINA EZ DEZAGUN LANGILEOK ORDAINDU

- Administrazioek funts berezia sortu beharko dute neurri hauek inplementatzeko. Aurrekontuetan onartutako inbertsioak ber-aztertu eta neurri sozial hauek inplementatzeko neurriak hartu.
- Zerga politika progresiboa eta neurri zehatzen bidez, enpresariak, kapital errentek eta gehien dutenek ordaindu beharko dute krisi honen eragin ekonomikoa.
- Azken urteetan irabazi handiak izan dituzten enpresa talde eta multinazionalak elkartasunezko zerga berezia.
- Banketxeen ekarpena bideratzeko neurriak aztertu eta expropiaturiko etxebizitzak etxe gabeko herritarrentzat ahalbideratu.

# 09

## LURRALDETUTAKO EKONOMIA SAREAK BABESTEKO NEURRIAK

- Ekonomia soziala eta tokian toki lurraldetutako enpresak babesteko eta hauen erresilientzia bermatzeko tokiko funtsak sortu, enpresa txiki eta ertainak, merkatariak, langile-autonomoak, eta ekonomia sozial eraldatzaileko proiektuak bertan kokatuz.
- Tokiko hornidura publiko eta komunitarioarako, lurraldetutako ETE (Enpresa Txiki eta Ertainak) eta ESE enpresak lehenestea.
- Lurraldetutako ekonomia sareetako eragileei eskatzen diegu bizitzak, langileen eskubideak eta herritar guztien ongizatea jarduera ekonomikoaren aurretzen jartzea, kasu guztietan. Egoera honek eskatzen duen arduraz, enpresa baliabideak denon ongizatea bermatzera bideratzea, ekimen publiko eta komunitarioetara gehitzeko.



**AZKEN HITZA:  
BURUJABETZA ALDAKETA SOZIALERAKO.  
AUTORITARISMOA ETA FAXISMOAREN AURKA.**

Koronabisuraren pandemiak sorturiko alarma egoera baliatzen ari dira espainiar zein frantziar gobernuak estatuaren birzentralizazioan sakontzeko, horretarako beharrezkoak dituzten neurri guztiak hartuz. Testuinguru honetan, ordea, uste dugu burujabetza aldarrikatzea inoiz baino beharrezkoagoa dela. Burujabetza politikoa eta materiala behar ditugu, horretarako bizitza sustengatzen dituzten tresna publiko eta komunitarioak herritarren kontrolpean eta erabakitzeko eskubidearen baitan egon behar dira.

Beldurra zilegia da, baina baita aliatu arriskutsua ere. Naturarekiko eta pertsonetikiko interdependentzia inoiz baino agerikoagoa den une honetan, ez dezagun utzi logika neoliberalari bide berriak urratzen. Neoliberalismoaren indibidualizazio prozesuari aurre egin behar diogu, elkarrekin, herritar sektore zabalenen antolaketa kolektiborako tresnak lehenetsiz, krisi multidimentsionalari aurre egiteko.

Kapitalaren logika argia da: negozio eremu berriak esploratu eta krisia etekinak handitzeko erabili, langile eta herri sektoreon prekarizio eta esplotazio egoera areagotuz. Demokrazia ekonomikoan oinarrituriko enpresa eta ekonomia eredu berria behar dugu, egoerari herri gisa erantzun ahal izateko.

Inoiz baino beharrezkoagoa da hazkunde etengabearen logikari muga jartzea: badugu aukera ohitura berriei heldu, zaintza lanak balioan jarriz, komunitarioa eta kolektiboa izango den ereduari bide emateko borrokari heltzea. Naturaren ustiapenari mugak jarri, zerbitzu publikoen garapenak sakondu eta gure burua gobernatzeko beharrezkoa dugun burujabetza prozesuari indarrez ekiteko unea da. Eredu berri baten alde indarrak biltzen eta artikulatzen jarraitzeko unea da!

**BIZITZA BURUJABEA, ESKUBIDE OSOZ!**